

1915-1982: GENOZIDIO BATEN «NORMALIZAZIOA»

1915-ko Apirila: armeniarren genozidioaren hilabetea. Otomandar inperioak burutua, ia osoki «garbitu» zuten Armenia bertako biztanleez. Zenbat armeniar hilik eta deserriturik? Ezin esan. Miloi bat eta erdi, agian. Herri osoa, gutxi gora-behera. Kemal «Ataturk»ek horrela «konpondu zuen» armeniar arazoa; eta bide bera hartu zuen, nahiz arrakasta gutxiagorekin, Turkiako kurdotarrekin. «Ekialdeko mendietako iskanbilak» bukatu ziren, eta kito. Horrela egiten da Historia.

Baina gero kondatu egin behar da. Eta itsusia izan zen turkiarren jokamoldea. Geroztik pasa diren 67 urteetan, turkiarrek ez dute guztiz lortu beren buruaren «txukunketa». Bidea ezaguna da, halere: aski da esatea «genozidioaren ideia hori gezurra dela».

Eta horixe da munduan barreneko turkiar enbajadek orain zabaltzen duten egia ofiziala: «the stories of large scale massacres were, in fact, largely invented by Armenian leaders in Paris and London» (= izari handitako hilketen kontuak, egia esan, Parisen eta Londresen bizi ziren armeniar buruzagiek asmatuak izan ziren funtsean).

Genozidioaren ondoren, «normalizazioa»; baita kondairaren mailan ere.

Gauza bera esaten dute antisemitek juduen genozidioari buruz: ez zela horrelakorik izan, «gerra-hilketak» baizik ez zirela gertatu nazien garaian, juduen genozidioaren kondua «ipua» dela, eta abar. Lehendabizi sei miloi judu hil; eta gero «ipua» dela esan. Horrela borobiltzen da historia, jaunak.

Eta ez pentsa, gero, hau gugandik urruti sinesten denik. Nik behin bakarrik afaldu nuen Parisen Jon Miranderekin. Baina egun bakar hartan bertan esan zidan gure idazleak juduen genozidioarena «gezurra» zela, eta juduek «asmatutako ipua» zela... Gure arteko haserrea nondik sortu zen asmatzea ez da oso zaila...

Fenomeno bera dugu geure begien aurrean armeniar genozidioaz: orain armeniarrek dira «terroristak». (Ikus honekin doan Agiriaren izenburua). «Terrorism», bai: **armeniarrena**. Azkeneko hilabeteotan zazpi turkiar konsul orokor hil baitituzte Europan eta Ameriketean armeniar abertzaleek; azkena Los Angeles-en bertan.

Joan den astean, hain zuzen, «Armeniar Genozidioaren Astea» antolatu dute U.C.L.A.-n



handik etorritako deserrituena seme-alabek. Eta zenbait hitzaldi eta ekintzatara joan naiz. Entzule eta ikusle, lau katu; eta lau katu horien artean, euskaldun hau. Aurpegiak eta itxurak ikusteak besterik ez zen behar: armeniar genozidioa bost axola zaio gaurko munduari. «Baketan utz gaitzate, otoi, armeniar kapar horiek», entzun bide daiteke bazterretan. Dantzak ikusi ditugu (Kalifornian armeniar piloak dago, jakina): zenbait aldetatik leun, gure «Sagardantza»-ren tankerakoak edo; eta bestetan bortitz, baina, ni naizen ezjakin honi, errusiar kutsukoak iruditu. Filma bat ere bai. Ikusleen aurpegiak beltzaran oso, nesken begiak beltz, persiar edo hindutar nesken kolorekoak; eta luzetasunez, motz. Armeniarrak, hitz batez.

1915-ko sarraskia kondatu dute berriz. Arrazoina zehazki eman du Levon Marashlian hizlariak: «the refusing to assimilate» (= asimilatua izateko ukoa). Bestela esateko: armeniarrek ez dute turkiar bihurtu nahi.

Armeniar-tasuna, jakina, hizkuntzaren erabiltzuntzan neurtzen dute armeniarrek. (Kalifornian badute «The Armenian Observer» delakoa, ingelesez; baina baita beste aldizkari asko armenieraz, armeniar alfabetoaz idatzirik).

Soluzioari buruz ere, zalantza gutxi utzi du: «freedom, independence and social rights» (= askatasuna, burujabetasuna, eta gizarte-eskubiak).

Genozidiotik ihes eginik, munduan barrena dagoen armeniar jendaketaz gain, bi eskualde aipatu dituzte. URSS-eko Armenia sobietikoa bata, «gure aberriaren bosten bat», azaldu dute-nez. Bertako biztanleen artean, % 90 dira armeniarrek; eta hizkuntza bizirik dago han. Egoera Georgia-ren antzekoa dela esan dute (oso ona, beraz, gainerako eskualdeen arauera; are Europako «minoría» gehienaren arauera ere).

Beste armeniar taldea, berriz, Istanbul-en bizi dena: 60.000 bat. Dexente turkiarturik, areago «demostratu» behar dute han beren turkiar abertzaletasuna beste inon baino. Bestetik, Istanbul-ko dirudunen artean kokatu dira armeniar familia mordoska bat. Hauen arteko batak, orain dela gutxi, bere turkiartasuna nabar-



men uzteko, miloi bat et' erdi dolar eman dizkio Turkiako Armadari...

Armeniarrek ez dute ahaztu, ordea, eta ez etsi. Ni hemen nengoelarik, armeniarren genozidioa «ipui»tzat azaltzen zuen irakasle bat, bota dute U.C.L.A.-ko armeniar ikasleen presioari esker.

Eta horregatik zabaldu dute aste honetan «Agiri» hori Unibertsitatean: «In memory of the hundreds of thousands of Turks who died at the hands of Armenian terrorists between 1914 and 1918»... Kondaira alderantziz: armeniarrek hil omen zituzten «ehunka milaka» turkiarrak 1914-1918 urteetan... Handiagoa gezurra, eta hobe (Goebbels-en aholkua, ez nirea).

Armeniarrek USA-n prestatua zuten erakusketak, debekatu egin du Reagan-en gobernuak: «controversial» izan bide zitekeen...

Baina irakur dezagun turkiarren Agirian:

1/ «gure asabek lurraldea puntu nagusia da OTAN-entzat eta Mendebaldeko Demokraziaren defentsarentzat...».

2/ «armeniar terroristek azkartu egin dituzte nazio-arteko komunista erakunde terroristekin zituzten lokarriak...».

3/ «armeniar terroristekin «desestabilizatu» egin nahi dute Mendebaldeko oreka zaila...».

4/ «borondate oneko amerikar-armeniar guztiak dei egiten diegu, aberrikeria oldartzaile eta menturazale hori kondena dezaten...».

5/ «gaur bizi diren ehunka milaka turkiarrek, nahiz berauen gurasoak eta aiton-amonak 1915-1918-an armeniarren eskuetan hilak izan, barkatu eta ahaztu egin dute...».

6/ «garaia etorri da, beraz, armeniar terrorismo extremista salatze eta akabatze...» (dena hitzez hitz aldatzea litzateke onena, benetan).

Frantzia esan ohi den bezala: «Arménie? Connais pas».

Txillardegi